



Arartekoaren 2018R-209-18 Ebazpena, 2018ko azaroaren 19koa. Horren bidez, Irungo Udalarari gomendatzen zaio berrikeratzen udal kiroldegiko tarifak, guraso bakarreko familien (kide gutxiko familiak barne) sustapenaren ikuspegi integraztailetik.

Aurrekariak

1. Ama batek, ezkongabeak, hamar urteko semearekin batera guraso bakarreko familia osatzen duenak, kexa aurkeztu zuen Arartekoan, Irungo Udalaren jarduketarekin ados ez zegoela adierazteko.

Kexagileak azaldu zuenez, 2016ko maiatzean, Artaleku-Azken Portu udal kiroldegien Zuzendaritzak jakinarazi zion, akats bat zela medio, semeari "*bi gurasoak kiroldegiko bazkide*" direnean 3-12 urte bitarteko gazteei aplikatzen zaien tarifa aplikatzen zitzaioela (2.2 Haurrak < 12 urte + 2 heldu); baina, familia-unitate horren kasuan, gurasoetako batek bakarrik zerbitzuak erabiltzeko abonamendua zuenez, hurrengo hiruhilekotik aurrera, 2.1 Haurrak < 12 urte + 1 heldu tarifa aplikatu behar zitzaioela.

2017an, kexagileak zalantzan jarri zuen Irungo Udalean tarifa hori aplikatzeko erabakia, guraso bakarreko familia zela esanez, eta azpimarratu zuen bere bizikidetz-unitateko kide guztiak udal kiroldegiko abonatuak zirela dagoeneko.

Hain zuzen ere, azaldu zuen abonamenduak osatzeko orduan ez zirela kontuan hartzen guraso bakarreko familien interesak, eta azpimarratu zuen familia mota horretan, definizioz, guraso bakar bat dagoela eta hala egon behar duela; beraz, guraso horrek bakarrik eman dezake alta, bazkide gisa, udaleko kirol zerbitzuan. Era berean, interesdunak beste alde bat nabarmendu zuen, gure gizarteko guraso bakarreko familien ahultasun handiena agerian uzten duena: askotan, familia bere kargura duen guraso bakar hori emakumea dela.

Horren adibide, bere kexan, interesdunak udaleko kirol instalazioetan 2017an eta 2018an indarrean zeuden tarifak aipatu zituen, hain zuzen, 3-12 urte bitarteko adingabeen atala:

2017:						
	HIRUHILABETEKO ABONUA			HIRUHILABETEKO ABONUA		
	Irunen erroldatua	Matrikula	GUZTIRA	Irunen ez erroldatua	Matrikula	GUZTIRA
Haurra (3-12 urte barne)	46,69 €	62,63 €	108,92 €	58,33 €	62,63 €	120,56 €
Guraso bat abonatua	31,12 €	41,49 €	72,61 €	38,89 €	41,49 €	80,83 €
2 guraso abonatuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €

2018:						
	HIRUHILABETEKO ABONUA			HIRUHILABETEKO ABONUA		
	Irunen erroldatua	Matrikula	GUZTIRA	Irunen ez erroldatua	Matrikula	GUZTIRA
Haurra (3-12 urte barne)	47,43 €	63,23 €	110,66 €	59,25 €	63,23 €	122,48 €
Guraso bat abonatua	31,61 €	42,15 €	73,76 €	39,50 €	42,15 €	81,65 €
2 guraso abonatuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €



2. Arartekoak, sor daitekeen eztabaida hasi aurretik, bere informazio-eskaeran agerian jarri zuen guraso bakarreko familiei ematen zaien babesak eta familia horiek sustatzeak bat etorri behar dutela bi gurasoko familiek eta kide ugariak jasotzen duten babesarekin.
3. Irungo Udalak bere erantzunean honako hau adierazi du: *"garrantzitsutzat jotzen dugu ñabardura bat egitea beharrezkoa da; izan ere, udal kiroldegietako tarifetan ez da inolako familia-abonamendurik jasotzen. Hau da, ez dago familiako kide guztiak barnean hartzen dituen inolako familia abonamendurik, aipatutako abonamendu horiek kendu egin zirelako Irungo Kirolaren Udal Patronatuaren Artezkari Batzordeak, 2013ko otsailaren 24ean eginiko bileran Artaleku eta Azken Portu kiroldegien kudeaketa, ezta ustiapenerako kontratazioa esleipena erabaki zuen.*

Jakitun izanik aipatutako kentzeak gizarte sektore batzuen bazterketa ekarriko zuela, eta kontuan izanik udaleko kirol zerbitzuan tarifak Udaleko Ordenantza Fiskaletik kanpo geratzen direla aplikatzen den gestio eredu dela eta, neurri zuzentzaile bat ezarri da familia-unitatearen errentan oinarritua.

Neurri zuzentzaile hau kiroldegi zerbitzuak erabili ahal izateko diru-laguntzen deialdian datza. Honen bidez zabaldu nahi da udal kiroldegiak erabiltzen direnei zuzendutako hobarien eredu, zeina jasotzen baita 2016ko uztailaren 30eko Udalbatzaren bilkuran onartutako Ordenantza Fiskalean.

Nabarmendu behar da familia ugariak eta 1, 2, 3 eta 4 kidek osatutako familia-unitateak eskuratu ahal dituztela diru-laguntza horiek. Bestela esanda, guraso bakarreko familiek ere eskatu ahal dute diru-laguntza, betiere deialdian jasotzen den urteko gehieneko errenta gainditzen ez duten bitartean. Diru-laguntza hau familia-unitateak ordaindutako tarifen % 75era irits daiteke.

Bestalde, haurrentzako deskontu batzuk daude. Hauek abonatutako heldu kopuruari loturik dago, baina, ez da inola ere ez neurri zuzentzaile kontsideratzen. Izan ere, lehenago azaldu den bezala, errenta da hartu beharreko neurria zehazten duena.

Aurrekoa alde batera utzita, Irungo Udalak bat egiten du Arartekoak dioenarekin, alegia Administrazio Publiko guztiaren betebeharra dela oztopo guztiak gainditzea eta jarduketa-neurri positiboak jartzea ahultasun egoera berezian dauden familiei laguntzeko, eta horixe da guraso bakarreko familien kasua.

Hori dela eta Irungo Udalak lanean jarraituko du behar diren neurriak jartzeko, familia modalitate guztien berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadila".
(sic)





Gogoetak

1. Arartekoak jakin badaki lan zaila eta konplexua dela udal zerbitzuetako prezio-tauletan hobariak ezartzea, udalerrietan agerian jartzen diren premia ekonomiko eta sozialak aintzat hartzeko eta haien aurrean erantzun egokia emateko.

Dena den, zerbitzu publikoen tarifetan guraso bakarreko familiak aintzat hartzeari dagokionez, agerian utzi behar da alde handiak daudela; izan ere, toki-erakunde batzuetan kontuan hartzen da familia horien berezitasuna; beste batzuetan, aldiz, alde batera uzten da haien egoera, jarrera horrek familia horietako kideei eragiten dien kaltea agerikoa izan arren.

2. Irungo udalerrian, Artaleku eta Azken Portu kiroldegietan 2018. urtean zehar indarrean dauden abonua eta tarifak, web orrian argitaratutako informazioaren arabera, honako hauek dira:

2018:						
	HIRUHILABETEKO ABONUA			HIRUHILABETEKO ABONUA		
	Irunen erroldatua	Matrikula	GUZTIRA	Irunen ez erroldatua	Matrikula	GUZTIRA
3 urtetik beherago haurra						
Guraso bat abonatua	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
2 guraso abonatuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Haurra (3-12 urte barne)	47,43 €	63,23 €	110,66 €	59,25 €	63,23 €	122,48 €
Guraso bat abonatua	31,61 €	42,15 €	73,76 €	39,50 €	42,15 €	81,65 €
2 guraso abonatuak	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €
Gaztea (13-16 urte barne)	63,22 €	42,15 €	105,37 €	79,07 €	42,15 €	121,22 €
Guraso bat abonatua	47,43 €	63,23 €	110,66 €	59,22 €	63,23 €	122,48 €
2 guraso abonatuak	31,61 €	42,15 €	73,76 €	39,50 €	42,15 €	81,65 €
17-23 urte barne	63,22 €	75,85 €	139,07 €	79,07 €	75,85 €	154,92 €
Guraso bat abonatua	47,43 €	75,85 €	123,28 €	79,07 €	75,85 €	154,92 €
2 guraso abonatuak	31,61 €	75,85 €	107,46 €	79,07 €	75,85 €	154,92 €
Heldua	63,22 €	75,85 €	139,07 €	79,07 €	75,85 €	154,92 €
Desgaitua	31,61 €	42,15 €	73,76 €	39,50 €	42,15 €	81,65 €

Irungo Udalak bere erantzunean azaldu duenez, udal kiroldegietako prezio-tauletan ez dago familia-abonurik, Irungo Kirolaren Udal Patronatuko Artezkari Batzordeak, 2012ko otsailaren 24an egindako bileran, abonua horiek kendu zituelako; bilera horretan ere, Artaleku eta Azken Portu kiroldegiak kudeatzeko eta ustiatzeko kontratua esleitu zen.

Familia babesteak garrantzi handia hartzen du gure ordenamendu juridikoan; hortaz, Konstituzioaren 39.1 artikuluan bermatuta dago politika sozial eta ekonomikoaren printzipio zuzentzaile moduan. Artikulu horrek dioenez: *“Botere publikoek segurtatzen dute familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa”*.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 2008. urtearen amaieran, [Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea](#) onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, familien eta haien kideen ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzera bideratuta dagoen familia-politika orohartzailea egiteko esparrua eta horren





oinarriak zehazteko xedez. Lege horrekin orientazio orohartzailea lortu nahi da, zuzentzen zaien familia motei nahiz jasotzen dituen neurriei dagokienez.

Zioen Adierazpenean, honako hau aitortzen du araudi horrek: *"Gizarte honetan, oinarrizko familia da denetan ohikoena, hau da, gurasoek eta seme-alabek osatua, baina bestelakorik ere badago, eta, horregatik, lege hau familia-mota guztiei dago zuzenduta. Dakartzan laguntza-neurri batzuk orokorrak dira, baina era berezian aintzat hartzen ditu egoera bereziki ahulean dauden familien arazoak, esate baterako guraso bakarreko familienak edo genero-indarkeria edo terrorismo-ekintzak jasan dituzten familienak; horrenbestez, lehenetsuna dute lehen honentzat familia horiek".*

Alde batetik, familia moten bilakaera aipatzen du legeak, eta hasierako ahalegina egiten du familia eredu berriei legitimotasuna emateko eta tratu-berdintasuna bermatzeko, tradiziozko ereduarekin parekatuta¹. Era berean, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearekin bat, arreta berezia jartzen du ahultasun egoeran dauden familiengan, kategoria horretan guraso bakarreko familiak, genero-indarkeriaren edo terrorismoaren biktimak barne, lege-esparruan araututa eta aintzat hartuta gera daitezten.

Bestalde, legeak seme-alaba adingabeen zaintza eta mantenua bermatzeko aita-amen ardura aipatzen du; izan ere, seme-alabak dituen pertsona orok nahikoa baliabide ekonomiko eta zerbitzu izan behar ditu, unitate ekonomiko independente moduan haien beharrei erantzuteko, beste pertsona batzuei laguntza eskatu gabe.

13/2008 Legeak administrazio publikoei esleitzen die oztopoak kentzeko eta egoera bereziki ahulean dauden familiei laguntzeko neurriak edo jarduera positiboak abian jartzeko betebeharra. Horri dagokionez, 3.2.c artikulua honako hau adierazten du *"Berdintasuna eta ekitatea"* izenburupean: *"Euskal herri-administrazioek familia-mota guztiak errespetatu behar dute, direnak direla familien osaera eta tamaina edo familia-unitate bakoitzaren oinarrian dauden bikote-harremanen eta seme-alabatasunaren izaera; eta, ekitate-printzipioa dela bide, babes handiagoa eman behar diete egoera bereziki ahulean dauden familiei".*

Gainera, lege bereko 24. artikulua azpimarratzen du zerga-neurriak homogeneizatu behar direla familiei laguntzeko. Zehazki, artikulua hau dio:

"24. artikulua. – *Zerga-neurriak homogeneizatzea.*

2. – Eusko Jaurlaritzak, udal-eskumen diren zerga, tasa eta prezio publikoei dagokienez, horietan batez ere familia ugarien eta egoera bereziki ahulean

¹ **"3. artikulua.** - Familia-politikaren funtsezko balioak eta printzipio inspiratzaileak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoaren familia-politika funtsezko balio hauetan oinarrituko da: (...) c) Familia-aniztasuna errespetatzea eta familia-mota guztiak berdintasunez tratatzea".



dauden familien alde egin dadin sustatuko du Autonomia Erkidegoko udaletan."

Familiei ematen zaien laguntza hobetzearen aldeko apustu irmo horrek "transmisio-uhala" izan du, familiei laguntzeko erakundeen arteko planak onartu eta ezartzean. Ildo horretan, seme-alabak dituzten familia guztiei gutxieneko baliabide ekonomiko batzuk bermatzea eta haur-pobrezia saihestea –familien aniztasuna errespetatuta– Gobernu Kontseiluak 2018-06-19an 2018-2022 aldirako onetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Planaren helburu estrategikoetako bat dela azpimarratu behar dugu. Izan ere, plan horrek, haur eta nerabeen ongizatea sustatzeko xedez, honako hau ezarri du 15. helburuan: *"Egitura eta ekipamendu soziokulturalen eta gizarte- eta hezkuntza-arlokoen garapena sustatzea, eta haur eta gazte guztiei eta, bereziki, egoera okerragoan daudenei, aisiaz, kirolaz eta kulturaz gozatzeko erraztasunak ematea"*.

Zerbitzuak indartzean eta familiei laguntzeko politiketan aurrera egin ahal izateko, administrazio publiko guztien jarduketa koordinatuen ondorioz sortzen diren sinergiak aprobetxatu behar dira. Administrazio guztien esku-hartzea, jardun maila eta esparru guztietan, familia babestera bideratzeko beharra eskatzen du horrek, babes hori jarduera publiko osoaren zeharkako ardatz komun bihurtuta. Gauzak horrela, toki-erakundeen jardun-esparruan hartzen diren erabaki legitimoek bultzada horiek jaso beharko lituzkete, eta erabakiak hartzean kontuan hartu.

3. Zerbitzu publiko baten kudeaketa ereduaren hautaketak, betiere legezkoa bada, ez du inolaz ere herritarren eta herritarrek osatzen dituzten familien babesa murriztu behar.

Arartekoaren iritziz, Artaleku eta Azken Portu kiroldegietan aplikatzen den tarifa ereduari lortu nahi izan den neutraltasuna ez da lortu, hobari handiena bi gurasoko familiek jasotzen dutelako, batez ere, udalerrian erroldatuta badaude.

Izan ere, prezioen zerrendan erabilitako hitza "gurasoa" da (gizona edo emakumea, gaztelaniazko "progenitor o progenitora"). Hau da, adingabeek eta gazteek ordaindu beharreko prezioaren murrizketa guraso abonatuaren kontzeptuarekin lotzen da, eta nabarmen handiagoa da, guraso biak badira zerbitzuko abonatuak. Ondorioz, ohartuki edo oharkabean, prezioen zerrenda osatzean bi gurasoko familia ereduaren alde egin da, eta horrek neurri handiagoan kaltetzen ditu guraso bakarra duten familiak, alegia, guraso bakarreko familiak, haien inoiz ez baitute hobari handiagoa erabiltzeko aukerarik izango, guraso bakarreko familia izanda, familia unitateko kide guztiek zerbitzuan izena eman arren.

Guraso bakarreko familiak ahultasun egoeran daude gure gizartean, familia unitatearentzako errenta jaso dezakeen heldu bakar bat dagoelako eta familia mantendu eta zaintzeko ardura pertsona bakar bati dagokiolako. Abiapuntuko





egoera zailago horri gehitu behar zaio, kasuen ehuneko handi batean, guraso bakarreko familia horietan emakumea dela familiaren arduraduna.

Guraso bakarreko familiak feminizatuak izateak, tamalez, are larriago bihurtzen du gaur egun gure gizartean dagoen genero-desberdintasunaren arazoa.

Aipatu bezala, 13/2008 Legeak administrazio publikoei esleitzen die oztupoak kentzeko eta egoera bereziki ahulean dauden familiei laguntzeko neurriak edo jarduera positiboak abian jartzeko betebeharra.

Kexa honetan hizpide dugun salaketak aldarrikapen legitimoa jasotzen du: guraso bakarreko familien alde, diskriminazio positiboko neurri zehatzak har daitezten, familia horiek eguneroko bizitzari aurre egiteko izaten dituzten zailtasun sozio-ekonomiko handiagoak kontuan hartuta.

Hau da, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legeak aldarrikatzen dituen eredu eta printzipioei jarraikiz, herritarrak ahalegin zehatza eskatzen du familia eredu berriari legezkoatasuna eta ikusgarritasuna emateko, eta, eredu ohikoagoen aldean, tratu berdina bermatzeko.

Tokiko erakundeek babesgabetasun egoera handian dauden familiak sustatzeko neurriak abian jartzeko bide bat tasetan eta prezio publikoetan hobariak aplikatzea izan daiteke.

Ezin da ahaztu toki-erakundeek araugintza-ahalmen zabala dutela hobari horiek arautzeko, eta familia unitate batzuen ahultasun bereziko egoeraren objektibazio handiari laguntzeko irizpideak erabil ditzaketela.

Zerbitzuaren kudeaketa ereduak, udalak legez aukeratu duenak, kontratua arautzeko baldintza-pleguaren ondorioz hasieran ezarritako prezioetan familia – edozein motatakoa– sustatzea bermatzeko aukerarik ematen ez badu, azaldu bezala tarifa-sisteman gertatzen den diskriminazioa antzemanda, kontratua alda daiteke, interes publikoko arrazoia dela medio (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 290. artikulua). Gainera, aldaketa horrek, aurreikusten denez eta dagokion azterketa ekonomikoa alde batera utzi gabe, zenbakien aldetik, ez luke lerma esanguratsurik eragingo zerbitzuaren adjudikaziodunaren diru-sarreraren zenbaketan, eta, eraginez gero, aipatu erregulazioak konpentsazioak xedatzen ditu.

4. Hiruhilekoko abonuen tarifa erdua, gainera, ordaindu beharreko zenbatekoan eragina duen bigarren faktoreari dago lotuta: administrazio-auzotasunari.

Kexa hau aztertzean, Arartekoa ohartu da abonatuak zenbateko ezberdina ordaindu behar dutela, Irungo udalerrian erroldatuta daudenean eta ez daudenean. Kontu horri dagokionez, esan behar da erroldatzea ez litzatekeela juridikoki onar daitekeen irizpidea, zerbitzu publikoa erabiltzeagatik ordaindu behar diren tasen zenbatekoan bereizketak egiteko.





Ezinbestez, Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onartu zuen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren aurreikuspenak aipatu behar dira, zehazki, 150. artikulua; izan ere, artikulua horrek erabiltzaileen berdintasun-printzipioa ezartzen du, zerbitzuen tarifei dagokienez, eta, zehazki, hauxe xedatzen du:

- "1. La tarifa de cada servicio público de la Corporación será igual para todos los que recibieren las mismas prestaciones y en iguales circunstancias.*
- 2. No obstante, podrán establecerse tarifas reducidas en beneficio de sectores personales económicamente débiles".*

Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren xedapen hori ez dator bat zerbitzua erabiltzeagatik –erabiltzailea bizi den udalerraren arabera, eta ez ematen den zerbitzua edo erabiltzailearen egoera sozio-ekonomikoa– prezio handiagoa ordaindu beharraren alde egiten duen tarifa ereduarekin.

Agerikoa dirudi udaleko kirol instalazio horiek erabiltzean erroldatuta ez daudenei ematen zaien zerbitzua Irungo udalerrian erroldatuta daudenei ematen zaiena bezalakoa dela. Horrela bada, eta ez dago bestela dela pentsatzeko arrazoirik, udaleko kirol instalazio horietako gaur egungo tarifa ereduak ez du betetzen zerbitzu bera baldintza berdinetan emateagatik tarifa berdina kobratzeari buruzko printzipioa.

Bestalde, auzotasunaren datu soiletik, ezin da objektiboki eta zentzuz ondorioztatu *"ekonomikoki ahula den sektore pertsonal"* bat dagoenik. Izan ere, hori izango litzateke gure antolamendu juridikoak tokiko erakundeei eskaintzen dien faktore bakarra biztanle-talde baten alde ezartzeko tarifa desberdin bat zerbitzu berbera emateagatik.

Horri dagokionez, ezin da ahaztu Irungo Udala zerbitzu publiko horren titularra dela, hortaz, bera dela udaleko Artaleku eta Azken Portu kirol instalazioetan aplikatzen den tarifa-sistemaren azken erantzule erabiltzaileen aurrean. Ondorioz, Irungo Udalari dagokio erabiltzaileei bermatzea berdintasun-printzipioa betetzea, udal zerbitzuen tarifei dagokienez (EKren 14. artikulua), baita Europar Batasuneko estatu kideetako lurraldean barrena askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea ere (Europar Batasunaren Tratatu 3.2. artikulua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 21. artikulua eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartaren 45. artikulua).

Horri dagokionez, Arartekoak gogora ekarri nahi ditu Espainiako Konstituzioaren 9. artikuluko xedapenak, 1. eta 2. apartatuak; horien arabera:

- "1. Hiritar eta botere publikoak Konstituzioaren eta araugintza juridikoaren menpean daude.*
- 2. Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osotzen dutenena benetako eta eragileak izan daitezen; baita*





galarazi edo osotasuna zailtzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarte mailan ere.

Esan bezala, zerbitzua zeharkako kudeaketaren bidez emateak ez du ezertan aldatzen udaleko kirol instalazioen erabiltzaile orori dagokion eskubidea – udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzu desberdinak baldintza berdinetan jasotzeko–.

5. Irungo Udalak argudiatu du neurri zuzentzaile gisa, diru-laguntzak emateko deialdia egin duela. Horren bidez, Udal Ordenantza Fiskalean jasotako hobari eredia udal kiroldegien erabiltzaileei ere aplikatu nahi zaie.

Diru-laguntzak emateak ez du aldatzen udal kirol instalazio bi horien tarifek sortzen duten berdintasunik eza, aurreko gogoetetan argudiatu bezala. Hori alde batera utzi gabe, deialdiaren edukia aztertuko da jarraian.

2017ko azaroaren 30ean, kirol zerbitzuetarako 2017ko diru-laguntzak emateko deialdiaren laburpena argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 229. zenbakian; testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean irakur daiteke.

Deialdiaren arabera:

“Une hauetan gizartea dagoen testuinguru ekonomikoak Udal Zerbitzuek Ordenantza Fiskalean jasotako hobarien eredia aldatzea ekarri du.

Udalaren kirol zerbitzuak ordenantza horietatik kanpo geratzen dira, aplikatutako gestio-ereduagatik. Hala ere, Udalak uste du inguruabar hori ezin dela eragozpena izan aipatutako ordenantzek errentan oinarrituta jasotzen duten hobari-sistema ezartzeak berekin dakarren babesa behar-egoeran dauden familiei helarazteko.

Horrela, bada, herritarrak oinarrizko kirol-zerbitzuak eskura ditzaten errazteko, zehazki, Artaleku eta Azken Portu kiroldegietako instalazioetarako abonamenduari dagokionez, deialdi hau egin da”.

Hau da, hasiera batean premia-egoeran dauden familiei oinarrizkotzat jotzen diren kirol-zerbitzuak eskuratzen laguntzeko sortu da diru-laguntza.

2. artikulua diru-laguntzak emateko prozedura arautzen du, honako hau adierazita: “...deialdia herritar guztientzako da, eta bereziki, ondoren jasotzen diren betekizunen arabera, udalerrian erroldatuta dauden udal kiroldegietako abonatuentzako”.

Diru-laguntzen bi lerro handiak jasotzen ditu deialdiak: ohikoak, hau da, abonamendu-kuotaren % 75eko diru-laguntzak edo abonamendu-kuotaren





% 25ekoak, familia-unitatearen urteko gehieneko errentaren arabera eta kide kopuruaren arabera. Laguntza-lerro horrez gain, kiroldegietako abonatu diren familia ugarietako diru laguntzen berariazko lerroa ezartzen du deialdiak. Familiak, diru-laguntza jasotzeko, Familia Ugarien Titulua eduki behar du, eta kiroldegian ordaindutako kuotaren % 100eko diru-laguntza jaso dezake, diru-sarrerak justifikatu beharrik gabe.

Zehaztu behar da, dena den, 2017ko deialdiak esanbidez aipatzen duela familia ugarietako diru-laguntzak *“salbuespen gisa, parte hartzearen bidez egindako aurrekontuen barruan esleitutako kontu sail bat dela medio”* ezarri direla.

Ohiko diru-laguntzak zein familia ugarietako kideentzat ezarritako berariazko diru-laguntza jasotzeko baldintza komuna hauxe da: onuradunek udalerrian erroldatuta egon behar dute, likidazio-gai den kuotari dagokion denboraldi osoan (2017ko urtarrilaren 1etik honaino).

Deialdiaren ezarpenak ikusita, lehenengo hurbilketa batean, esan daiteke Arartekoak ondo iritzi behar diola *“premia egoeran”* dauden familiei laguntzeko bide gehigarriak eta osagarriak bilatzeari.

Hala ere, agerian utzi behar da, batetik, toki-erakundeek ahaleginak egin arren, diru-laguntzen lerroak irekitzeak ez duela hobaria unibertsal eta berehalako bihurtzen; zerbitzuaren tarifyan bertan kuota murriztuak ezartzeak ez bezala. Kontuan izan behar da diru-laguntzen deialdi batean eskaerak epean aurkeztu behar direla, kuotak alde aurretik ordainduta, eta onuraren hedapena udal aurrekontuaren kargura esleitutako zuzkidura ekonomikoaren arabera dela.

Bestetik, badago beste faktore bat, neurriaren eragin-esparruaren orokortasuna eta unibertsaltasuna aldatzen duena, eta, beraz, *“premia egoeretan”* dauden familiei *“oinarizko kirol zerbitzuan”* abonatzen laguntzeko helburua mugatzen duena; faktorea, hain zuzen ere, Irungo udalerrian likidazio-gai den kuotari dagokion denboraldi osoan erroldatuta egotearen baldintzan dago oinarrituta.

Ukaezina dirudi sektore publikoaren finantza-jardueraren zati bat diru-laguntzen bidez bideratzen dela, pertsona eta erakunde publiko zein pribatuen eskari sozial nahiz ekonomikoei erantzuteko.

[Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak](#), erregulatzen du sektore publikoaren finantza-jardura hori. Diru-laguntza bat zer den zehatzeko orduan, legearen 2. artikulua hauxe dio:

“1. Se entiende por subvención, a los efectos de esta Ley, toda disposición dineraria realizada por cualesquiera de los sujetos contemplados en el artículo 3 de esta Ley, a favor de personas públicas o privadas, y que cumpla los siguientes requisitos:

- “a) Que la entrega se realice sin contraprestación directa de los beneficiarios.*
- b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la*





ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública."

Era berean, kontuan izan behar da diru-laguntzak ematen den guztietan 38/2003 Legearen 8. artikuluan jasotako printzipio orokorrak bete behar dira; izan ere, 3. apartatuak hauxe xedatzen du:

"La gestión de las subvenciones a que se refiere esta Ley se realizará de acuerdo con los siguientes principios:

a) Publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación.

b) Eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados por la Administración otorgante.

c) Eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos."

Lehenago esan bezala, Azken Portu eta Artaleku udaleko kirol instalazioetako erabiltzaile diren pertsona eta familia batzuek ezin dute Irungo Udalak sortutako diru-laguntzen deialdian parte hartu, objektiboki diru-laguntzaren bidez arindu nahi den premia-egoeran badaude ere, deialdiak berak mugatzen baitu parte-hartzea; izan ere, Irungo Udalean likidazio-gai den kuotari dagokion denboraldi osoan erroldatuta dauden erabiltzaileak onartzen ditu bakarrik.

Arartekoaren iritziz, egia esan, kasu guztietan ez da betetzen ezarritako helburua –premia egoeran dauden familiei oinarrizko kirol zerbitzuak eskuratzen laguntzea– nahiz eta Irungo Udalak hauxe adierazi duen: *"Jakitun izanik aipatutako kentzeak (familia-abonamendua) gizarte sektore batzuen bazterketa ekarriko zuela, eta kontuan izanik udaleko kirol zerbitzuan tarifak Udaleko Ordenantza Fiskaletik kanpo geratzen direla aplikatzen den gestio eredu dela eta, neurri zuzentzaile bat ezarri da familia-unitatearen errentan oinarritua".*

Era berean, diru-laguntzaren ezarpenak kontuan hartuta, deialdiak ez luke berdintasun-judizioa gaindituko, objektiboki diruz lagundu behar den ekonomia-egoera berdina duten bi familiak, bata udalerrian erroldatuta eta bestea ez, ez dira berdin tratatuko Irungo Udalean eta, ondorioz, ez dute berdin ordainduko udalaren kirol instalazioak modu berean eta baldintza beretan erabiltzeagatik. Era berean, babesik eta laguntzarik gabe geratuko lirateke objektiboki egoera are okerragoan daudenak eta ahalmen ekonomiko txikiagoa dutenak, udaleko kirol instalazioetako erabiltzaile horiek Irungo udalean erroldatuta ez daudelako, eta horregatik bakarrik.





Horri dagokionez, Oviedoko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak orain dela gutxi (2018ko uztailaren 27an) emandako ebazpeneko gogoetak gogora ekarri nahi ditu Arartekoak (JUR\2018\204321). Ebazpenean aztertu da ea udalerrian erroldatuta egotea –Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legetik bertatik sortzen den elementu objektiboa, oro har, sustapen-jarduera moduan udalek ezartzen dituzten laguntza-lerroak esleitzean onartzen dena– justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa den, hori oinarri hartuta, eskolako jantokiaren gastuei aurre egiteko udal diru-laguntza ematerakoan tratu desberdina ezartzeko.

Epaitegiak ondorioztatu du udalerriko ikastetxe publikoetan ikasten duten haur guztiek badute eskubidea udalak ematen dituen jantokiko beken onuradun izateko, ezarritako eskakizunak betetzen badituzte, udalerrian erroldatuta egon zein ez.

Hain zuzen ere, Epaitegiak honako hau adierazi du: *"sobre este particular, aun reconociendo que la cuestión efectivamente puede estar sujeta a interpretaciones en uno y otro sentido, se considera que no da soporte suficiente para ese trato diferenciado valorando para ello, en primer lugar, que el sentido y finalidad de las ayudas es el que los niños que acuden a los centros escolares en el municipio dispongan de unas ayudas para poder hacer frente a los gastos de comedor escolar, otorgando un determinado porcentaje de ayuda en relación al precio del menú siendo así que dicha situación de necesidad del menor (y de su familia) tanto se produce esté empadronado en este municipio o no y el elemento de conexión determinante con el término municipal ya se ve cumplido en la medida que la ayuda va dirigida precisamente a los niños que asisten a los centros escolares del municipio y no otro. Sería un contrasentido que niños que asisten a un mismo comedor y que estén sentados en la misma mesa y, teniendo una misma situación económica familiar o incluso alguno de ellos más desfavorecido, uno disponga de ayudas para el comedor escolar por la sola circunstancia de residir en este municipio y no el otro, aun cuando su situación económica fuera incluso de peor condición. En segundo lugar, se toma en cuenta asimismo que la propia realidad social de nuestra región, nos demuestra que en aras precisamente a conciliar la vida laboral y familiar, no es desde luego una realidad infrecuente que los niños no asistan a centro escolar de municipio en el que vivan sino que acudan a otro próximo (en este caso residen en Lugo de DIRECCION000 y el centro docente es en Oviedo, donde tiene su trabajo uno de los progenitores) por razón de ser en ese lugar el centro de trabajo de uno de los progenitores, siendo además que el propio dato del centro de trabajo de los progenitores es circunstancia equivalente al hecho de domicilio como criterio de admisión a plaza en centro docente y, para obtener plaza en el centro docente sito en Oviedo, ya se ha tenido que superar unos determinados criterios de admisión que, una vez cumplidos, se considera debe situar a los niños en igualdad de condiciones ante supuestos como el que nos ocupa de concesión de ayuda a comedor escolar."*





Arartekoaren iritziz, guztiz aplikagarria da azaldutako arrazoibidearen kasuan, are gehiago, Irun bezala, mugako udalerraren izaera duen hiriaren kasuan, non lanarekin zerikusia duen mugikortasunak eta familia eta lana uztartzeko beharrek eragina baitute mugaren alde bietan bizi diren familia askotan.

Hau da, Arartekoaren iritziz, diru-laguntzak emateko prozedurak, ezarrita dagoen moduan, ez luke erabat konponduko aplikatzen diren tarifetan hasieratik dagoen desberdintasun-egoera; kasu batzuetan, gainera, areagotu egin lezake, udalerrian likidazio-gai den kuotari dagokion denboraldi osoan erroldatuta egoteari buruzko baldintza gehituta.

Bestela esanda, udalerrri mugakide batean erroldatutako pertsona batek, kiroldegi horietako abonatuak eta premia egoera objektiboa duenak, diru-laguntzen deialdiarekin bat, ezin izango du deialdi horretan parte hartu, baizik eta erroldatutako pertsoneri dagokiena baino tarifa altuagoa ordaindu beharko du nahitaez, egoera ekonomiko okerragoan egon arren. Hau da, premia-egoera objektiboa izan arren, diskriminazio bikoitza jasan beharko luke, kiroldegi bi horiek erabili nahi izanez gero; batetik, erroldatuta ez daudenentzat indarrean daudenak baino tarifa handiagoak aplikatzen zaizkiolako, eta bestetik, familia-abonamenduak kendu izanaren ondorioak arintzeko diru-laguntzaren bidez sortu diren hobariak erabili ezin izango dituelako.

6. Arartekoa bat dator eta ondo deritzo Irungo Udalak neurriak abian jartzeko ahaleginetan jarraitzeko azaldutako borondate onari eta asmo irmoari, neurri horiek beharrezkoak baitira familia modalitate desberdinen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin. Hala ere, azpimarratu nahi du ahultasun-egoeran dauden familia guztiak benetan babesteko eta haiei laguntzeko, diskriminazio positiboko neurri zehatzak hartu behar direla familia horiek udaleko kirol instalazioen tarifa ereduaren konfigurazioaren mailatik bertatik aintzat hartzeko eta sustapen-politika publikoetan finkatuago dauden familia ereduarekin parekatzeko.

Illo horretan, ukaezina da guraso bakarreko familiek, familia ahulagoak direlako, babes publiko berezia izan beharko luketela –zuzena eta berehalakoa– horiek kudeatzea, ez bakarrik ekonomia mailan, baizik eta eguneroko bizitzako beste esparru batzuetan (kontziliazioa eta abar) karga askoz ere handiagoa da, guraso bakar bat dagoela kontuan hartuta.

Gure gizartean, gainera, agerian geratzen da guraso bakarreko familia askoetan emakumea dela familia-buru; gauzak horrela, familia horiei eskaini behar zaien babesa sendotzen lagundu beharko luke, neurri zehatzak ezarriz.





Horregatik guztiagatik, Arartekoak gomendio hau egin nahi du:

GOMENDIOA

Irungo Udalak dagozkion neurriak har ditzala udalaren kirol instalazioen tarifa sisteman guraso bakarreko familiei laguntzeko helburua aintzat har dadin, kide gutxiagoko familiak izanda ere.

Era berean, udal zerbitzu publiko horiek erabiltzeari dagokionez, ezarritako prezioek errespetatu beharko lituzkete erabiltzaile guztien berdintasun-printzipioa (Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua), baita Europar Batasuneko estatu kideetako lurraldean barrena askatasunez zirkulatzeko eta bertan bizilekua hartzeko eskubidea ere.

